



KALE GORRIAN BARRENA

Eskolatik ateratzen ari zenean harrapatu dugu. “Duela urtebetetik, bi lankiderekin eta gizarte-arloko lagunekin batera, arabiera ikasten dut astean bitan Herrerako meskitan (Donostia), hizkuntza hori ikasteaz gain, arabiar komunitatera gehiago hurbildu ahal izateko”. Aitortzen du ez dela hizkuntza erraza, “baina polita da ikustea eguneroko gure lanean, jatorri arabiarreko etxerik gabeko pertsonekin lan egiten dugunean, haiekin komunikatzeko aukera ematen digula, eta haiek ere ikustea beren kulturarekiko interesa dugula”.

Ander Mujika (Donostia, 1992) gizarte-langilea da, eta duela bi urtetik CARITAS GIPUZKOAaren Bidelagun proiektuan ari da (Etxerik Gabeko Pertsonekin kalean esku-hartzeko proiektuan).

Zer da Bidelagun?

Arrazoi ezberdinak direla medio arretarako zentroetara joaten ez diren Etxerik Gabeko Pertsonekin (EGP) lan egiteko jarri zen martxan proiektua; hau da, ondoan figura horizontalago bat, konfiantzazkoa, nahi zuten pertsonekin lan egiteko, eta aldi berean, laguntza eraginkorragoa eskaintzeko.

Ospitalera, epaitegira eta abar joan behar zuten pertsonen laguntzen hasi ginen CARITAS GIPUZKOAREN zentroetatik. Sei hilabeteko proba-pilotu baten ostean, iruditu zitzaigun *Bidelagun* programak erreferente izan behar zuela kaleko dinamikan bizi eta zentroen araudi-egituretan sartzen ez ziren pertsonentzat (hala nola CARITAS GIPUZKOAREN Aterpe, Eutsi eta Laguntza zentroen araudi-egituretan sartzen ez zirenentzat). Horrela hasi nuen nire ibilbidea Donostian kalean bizi diren pertsonekin.



jendearekin elkartzeko espazio bat zen kalea. Orain, horretaz gain, kalearen beste aurpegia ere ikus dezaket, guztiak etxera joaten direnean agertzen dena.

Noiz ateratzen zara jendearekin elkartzera?

Astearteetan eta ostegunetan. Ibilbidea bakarrik egin ohi dut –batzuetan lankideren batek laguntzen dit–, 21:00etatik 00:30era.

Beti ibilbide berbera egiten al duzu?

Aldatzen joaten naiz, astearen arabera, ezagutu berri ditudan etxerik gabeko pertsonen arabera eta egiten dizkidaten proposamenen arabera. Badut ibilbide bat, eta badakit hor badaudela kalean bizi diren pertsonak, harrera ona egiten didatela eta jasaten duten min hori pixka bat partekatzeko aukera izango dudala.

Nolakoa izaten da elkar ezagutzen ez duten pertsonen arteko topaketa hori?

EGPei beren ohiko inguruetan laguntzeko prozesua hasi nuenean, askotan pentsatzen nuen hori. Alabaina, gerturatu eta "eseri al naiteke zurekin?" galdetze hutsa asko estimatzen dute. Onartu egiten zaituzte, eta eskertu egiten dute norbait hurbiltzea.

Zer da zuretzat kalea?

Laguntza-programa honetan hasi aurretik, Anderrentzat, gertuko

Hasierako mesfidantza gainditzea lortzen duzunean, zer transmititzen dizute?

Esker ona, pertsona bat gerturatu zaielako guztiak etxera joan direnean. *Bidelagun*-eko harremana oso horizontala da. Haien arauetara egokitzen naiz, eta horregatik,



onartu egiten naute. Gainera, lotura askoz ere errealagoa da horrela, harremana zerbitzu bati lotutakoa denean baino.

Eta zure begiradak zer sumatzen du kalean? Harago doa?
Bai. Agian EGPak egongo diren espazioei erreparatzen diet, eraikin azpiei eta halakoei.

Eta, iluntasunaz gain, zer da gaua EGP batentzat?

Bakardadea. Espazio ez-seguru bat. Laster, hotza. Beldurra...

Zein da zurekin gaua partekatzen duten horien soslaia?
Gaur egun, seguru asko nire adinagatik, batez ere 18-30 urteko magrebtarrekin elkartzen naiz. "Zertara dator hau?" edo antzeko mesfidantzarik ez dut sumatu. Kontrakoa. Jendeak nahi du zu berarekin egotea, eta konfiantzazko giroa sortzen da. Eskertu egiten didate momentu hori beraiekin pasatzea.

Zure lanorduetan ez ezik, eguneko edozein ordutan egingo duzu haiekin topo.

Jakina. Asko gustatzen zait kalean egotea, eta ordu asko pasatzen ditut etxetik kanpo. Espazio bat baino gehiago partekatzen ditut haiekin. Bulego batean lan eginez gero, itxi eta alde egin dezakezu, baina kalean lan egiten duzunean, zailagoa da hori. Anderri ez zaio gertatzen begiak itxi eta ikusteari uztea. Eta begirada ere ez dut apartatzen.

Ugaritzen ari al da “etsaitasunezko arkitektura” delakoa?

Bi urte hauetan ikusi dut lehen oztoporik ez zegoen lekuetan orain jarri egin dituztela, pertsona horiek ez “bizitzeko” edo “instalatzeko”. Ikusi dut eserleku publiko batzuk kendu egin dituztela... Bestalde, zoritxarrez, jende askok denbora asko pasatzen du kalean gaueko baliabideren batera jo aurretik: bederatzi hilabete inguru da batez besteko denbora. Eta horrek kalte egiten du. Gazte etorkinek, egundokoak pasata, beren helburua lortu dute itxura batera, baina egunak eta egunak ematen dituzte kalean lotan. Eta egoera horretan alkohola eta abar kontsumitzen hasten dira. Ondoren, hilabete batzuetara, buruko gaixotasunak hasten dira agertzen. Gure gizartearen eraginez dago pertsona hori horrela.

Kalean zaila da atsedena hartzea.

Eta neguan, oraindik eta zailago. Horri gaineratu beldurra, beren “atsedena” eragozten duen beste pertsonaren baten presentzia edo kalean lo egitea debekatzen eta isunak jartzen dituen polizien presentzia, edo... Batzuek alkohola erabiltzen dute lo egiteko. Beste batzuek gauzez ezin dute, eta egunez hartzen dute “atsedena”.

Sucram (eskerrik asko) Ander!

